

Kristau ebanjeliko askoren artean Jainkoaren deiak garrantzi oso handia du, edozein kristauren biziera erlijiozkoan normal eta beharrezkotzat jotzen den gogoberrikuntza edo metanoia arartegabeko eta ohartuzkoa adierazteko. Ik. Bihotz-berrikuntza.

Ik. Deiera; Deiera-orientazioa.

Jainkoaren dekretua

Kristau-teologiaren arabera, Jainkoaren adimen-borondateen xedapen edo erabaki positiboa, halako obraren bat munduan burutze-koa. Orokorki, berriz, munduan edonola nabaritzen den Jainkoaren nahiaren agerpena da.

Ik. Probidentzia.

Jainkoaren dohainak

Ik. Jainkoaren bikaintasunak.

Jainkoaren edukitza

Ik. Ikuspen dohatsua; Jainkoak hartua.

Jainkoaren erregetza

Ik. Jainkoaren erreinua.

Jainkoaren erreinua

Sin.: Jainkoaren erresuma

Jesusen mezuaren muina adierazten duen esakunea. Markok (1,15) esaldi honen bidez laburbiltzen du Jesusen predikua: "Garaia bete da; hurbil da Jainkoaren erreinua; bihotz-berri zaitzte eta sinets Ebanjelioa". Itzulpen egokiagoa litzateke agian "Jainkoaren erregetza", honek hobeto adierazten duelako Jainkoaren presentzia obratzea eta egikaritzea.

Testamentu Zaharrean zehar aurkitzen den Mesiairen itzaropidea laburbiltzen du esakune horrek; baina ez da erregetza lurterra, edo nazioaren bati dagokiona, Jainkoak gizon-ema-kume guztiei eskaintzen dien "azken garaietako" *salbamena eta *askapen erabatekoa baizik.

San Mateoren ebanjelioak "Zeruetako erreinua" erabiltzen du gauza bera adierazteko.

*Jesukristo hil eta piztu ondoren, Bera, beraren *piztuera eta jauntasuna, bihurtzen dira Elizaren mezuaren muina. Jainkoaren erreinuari adiera bat baino gehiago eman izan zaio Elizaren historian: Batzutan, Elizarekin berdindu da edota kristau-inperioarekin; bestetan, gizonaren eta kristau-elkartearen barne-erregetza izpiritualaren erara ulertzen da.

Pio XI.ak eratu zuen Kristo erregearen jai, Eliza Katoliko osoan ospatzekoa. Sa-

rritan adiera teokratikoa eman izan diete Kristoren titulu eta jai horiei. Ik. Teokrazia; Kristo erregea.

Jainkoaren erresuma

Ik. Jainkoaren erreinua.

Jainkoaren eskua

Bibliak darabilen esakunea, Jainkoak diren guztien gain duen aginpide eta ahal osoa adierazteko; bai gaizkileak zigortzean, bai bere *probidentzia agertzean edo norbaiten hautapena egitean, Jainkoaren ahala adierazteko erabiltzen da *eskuaren sinboloa.

Ik. Jainkoaren besoa; Ahalguztia.

Jainkoaren ezagugarritasuna

Esakune horrekin adierazten da gizakiak arrazoimenaren bidez Jainkoaren izatea eta bikaintasunak ezagutzeko duen gaitasuna. Arazo filosofiko hori Jainkoaren izatearen egiaztabide errazionalarena baino zabalagoa da. Bestalde, giza arrazoa esatean ez da ezagutza teoriko hutsa adierazten; bizitzako esperientzia, tradizioa eta kultura osoa kontutan hartzen dira. Giza arrazoimenaren eta goi-agerkundearen harremanaren arazoa dago tartean.

Ik. Jainkoaren izatearen egiaztabideak; Erlijiozko esperientzia; Tradizionalismoa.

Jainkoaren grazia

Jainkozko grazia ere esaten da.

Grazia hitzaren adiera arruntak aparte, bi nabarmendu nahi ditut hemen:

1. Funtsean juridikoa; norbaitek zor duen zigorraren barkamena esan nahi du.

2. Teologikoa. Latinezko gratia-tik dator, eta hori grezierazko kharis hitzaren itzulpena zen. Hitz honen funtsezko esanahiak hainbat adar edo adiera ugari ditu. Horiek esateko, hitz ezberdinak erabili izan dira euskaraz: dohaina, mesedea; eskerra eta eskergarria; ederra, atsegina; edertasuna, xarma. Adiera guzti horiek sartzen dira nolabait grazia edo kharis teologikoaren esanahia azaltzean.

Erlijiozko kontzeptua denez, beraz, eta orokorki harturik, zera adierazten du: Jainko handiak gizakiarenganako duen onginahia eta gogo ona, bere doaneko laguntza baldingabea ematera eragiten diona eta Berari begira hura maitagarri, atsegingarri, eder eta eskerroneko bihurtzen duena.

* * * *

Grazi erlijioan ezaguna zen jainkoen kharis-a, hau da, gizon-emakumeenganako on-

ginahia, horiei mesedeak egitea, horiekiko bihozberatasuna, batetik, eta gizakien alde-tiko eskerrona, bestetik.

Hinduismoan, bereziki Bhagavadgita-ko erlijiozko jarrerara graziazko harremanean dago oinarriturik: Krisna eta Xiva-renganako *jaiera eta fedezko atxekimendu sutsuaren bidez itxaron dute *askapena haien graziari esker, eta ez norberaren obra onen bidez *karma desegitetik. Ik. Bhakti.

Hinayana budismoak ere ezaguna du graziaren bidea salbamenerako, bereziki Amida-ren *gurtzan: urrikaltasun eta maitasun mugagabearen adierazle bait da *Amida; berarenganako fede eta jaietaren bidez lor zitekeen salbamaena. Ik. Hinayana Budismoa.

Islamismoarentzat onginahiez betea eta errukiorra da Allah.

Kristautasunean, azkenik, funts-funtsezko kontzeptua da graziarena, Itun Zaharreko *legearen bidezko salbameneraren aurrez aurre edo. S. Paulok landu du gehien Itun Berrian graziari buruzko teologia. Historian zehar, berriz, S. Agustinek eta Luter-ek nabarmendu dute, muturreraino eramanez.

Gizaki bekatarari eta eskertzarreko arbuigarriari Jainko handi eta urrikaritsuak eskaintzen dion. *maitasuna da grazia, hura bere gogoko, eskerroneko eta *adiskide bihurtuz eta bere semetzat hartuz: Jainkozko *bizian partaide izatearen gisa definitzen du jainkozko grazia teologiak.

Kristautasunaren *eroskondearen egia funts-funtsezkoarekin lotuta dago, hain zuzen, graziarena. Izan ere, Jainkoaren grazia *Jesukristo bera gizon egitean eta gizon-emakumeen salbamenerako bizia ematean agertu da era bikainean: Jainkoak bere buruaren dohaintza osoa egin bait dio gizakiari, bere urrikaltasunak eta maitasunak eraginda.

Lege-erlijio eta grazi erlijioen arteko bereizkuntzan, kristautasuna agertzen da era bikainenez bigarren motakoa. San Paulok nolabaiteko aurkakotasuna ipintzen du legearen eta graziaren artean.

Norbanakoen arteko maitasuneko harremanen (hartu-emanen) funtsean dago graziaren kontzeptua. Dohainaren eta eskerraren arteko pertsonarteko dinamikan gertatzen da. Bataren aldetik, onginahiezko irekieraren gainean bere buruaren doaneko dohaintza egiten dio, bere adiskidetasunaren eta maitasunaren eskaintzarekin batera.

Irekiera eta dohaintza pertsonal horrek bestearen eskerronari eragiten dio: eskerroneko eta adiskide bihurtzen du dohainari funtsezko harrera ona egin diona. Eskerroneko izatea ez da, berez, hartzailearen joera

hutsa; dohaina egin duenarentzat atsegingarri eta gogoko bihurtzen da hartzailea, dohain-egilearen ederra (=grazia) nolabait merezi izateraino. San Agustinek adierazten du, berak esaten dakien trinkotasunez: Jainkoak bere *dohainak saritzen dituela gizon-emakumeengan, hauen *meritu bihurtuz bere dohainak.

Graziatzko lagunarteko "dialektika" hori honelatsu laburbil daiteke: Jainkoaren graziak (onginahiezko dohaintzak) graziaz betetzen (edertu egiten) du gizakia, eta eskerrerez (jainkozko dohainez) hornitzen; eskerroneko (maitagarri eta Haren gogoko) bihurtzen da gizakia, Jainkoaren ederrespena eta atsegina merezi izateraino. Gizon-emakumeen erantzuna eskerrak ematea izango da. Jainkoaren dohaintza eta gizakiaren eskerrona ederrespen horretan batzen dira. Hori dena da kharis = grazia.

Indiako erlijio mistikoetan munduko gauza hutsaletatik ateratzea da graziaren fruitua. Erlijio profetikoetan, berriz, bereziki kristautasunean, bekatutik ateratzea. Barkamenerekin eta zuzenespenerekin hertsiki lotuta dago graziaren kontzeptu kristaua. Ik. Erlijio mistikoa; Erlijio profetikoa.

Kristau-teologiaren arabera, Elizaren *sakramentuak dira jainkozko graziaren adierazpen eta bitarteko nagusiak. Baina mundu eta historia osoak, bereziki Elizak, du sakramentu-izaera: hau da, Jainkoaren giza-kienganako graziaren zeinu eta bide dira: eguneroko bizitza da *fededunarentzat graziaren eskaintza-lekua.

Kristau-teologiaren historian zehar eztabaida bihurri eta biziak gertatu dira graziaren irakatsiari buruz. Gehienak grazia jainkozko salbamen-energia gisa ulertzen den aldetik sortu dira. Hiru gai hauen inguruan gertatu dira arazo nagusienak: a) Graziaren doantasa eta *salbamenerako premia; b) Graziaren unibertsaltasuna edo gizon-emakume guztientzako izatea; c) Gizon-emakumeen *askatasuna eta erantzuletasuna graziari buruz.

Fede katolikoaren arabera, salbamenerako beharrezkoa izanik ere, erabat doanekoa da grazia Jainko subiranoaren aldetik, eta eraginkorra, aldi berean; bestalde, gizaki guztiari eskaintzen die Jainkoak bere onginahiezko grazia, salbamenerako denei egiten dielako dei. Hala ere, gizon-emakume bakoitza aske da dei eta grazia horiei uko egiteko, eta bere erantzuletasun osoa du bere salbamaena lortzean. Ik. Jainkoaren deia; Predestinazioa.

Badirudi baieztapen guzti horien artean sortzen diren aporiak irtenbide errazionala badutela, *misterioa eta guzti, energia me-

kaniko eta laguntza instrumental baino hobeto, maitasunezko harreman pertsonal gisa ulertzen denean graziatzko dohaintza-eskerrena.

Ik. Graziatzko bizia; Goi-bizia; Justifikazioa; Grazi erlijioa; Lege-arlijioa.

Paulo Agirrebaltzategi

Jainkoaren heriotzaren teologia

Gaurko munduaren *sekularpena errotik balioztatuz, Amerikako Estatu Batuetako protestanteen artean, batez ere 1970. hamarrurtealdian, zabaldu zen joera teologikoa.

Teologo hauek aipatzen dira batez ere: J. Vahanian, W. Hamilton, Th. Althuzer eta D. Sölle alemana. Sekularpen-teologia azken muturreraino eramanez, gaurko mundu tekniko-zientifikoan, Jainkoa alferrikako kontzeptua gertatzen omen den horretan, egin nahi dute *teologia.

Bestelako teologo sekularistek bezala, batez ere D. Bonhoeffer-en idatzietan oinarrituz, hizkera erlijiozkoa gainditu nahi dute, pentsaera sekulartuarekin fedez gaurko munduan gogoeta egiteko.

Ik. Sinboloa; Hiri-erlijioa; Sinbolismoa.

Jainkoaren hiria

Sin.: Hiri zerutarra

S. Agustinengandik datorren esakunea, *salbamen-historia, historia mundutarraren barruan, adierazteko. Izan ere, Jainkoak hautatu eta graziatz horniturikoek osotzen omen dute Jainkoaren hiria. Ez da benetan Elizarekin berdintzen, S. Agustinen arabera, nahiz eta gero horrela interpretatu izan sarritan. "Hiri zerutarra" ere esaten da, han agertuko bait da erabat Jainkoaren hiria. Hiri lurtarraren eta hiri zerutarraren arteko bereizkuntza ez da estatuaren eta Elizaren arteko bereizkuntza, sarritan interpretatu denaren aurka. S. Agustinen kontzeptua teologikoa da, eta ez soziologikoa.

Ik. Hiria.

Jainkoaren hitzaren adierazpena

1. Kristau-teologiak esakune hori erabiltzen du, Bibliako testuen mezua edo adiera ulertzea eta aditzera ematea esateko. Hizkuntzazko egintza da funtsean eta hizkuntzazko itzulpenarekin zerkusi handia du. *Hermeneutikak ikasten ditu adierazpenaren prozesua eta arauak.

2. Orokorkiago kristau-hizkeran erlijiozko mezua zabaltzea, banatzea eta horren "berri ematea" da. *Pastoraltzak fase eta era ezberdinak bereizten ditu eginkizun ho-

rretan: *Kerigma edo mezuaren lehen aldarrikapena; *katekesia, edo mezuaren edukinaren azalpena; *teologia edo fedeko edukinen gogarte sistematiko eta sakona. Hau ere mezu-tze edo berri emate gisa ulertzen dute batzuk, "zientzia" izateaz gain. Bestalde, hiru eginkizun bereizi ohi dituzte Jainkoaren hitzaren edonolako adierazpen-modutan: kerigmatikoa edo fedea suspertzekoa; kateketikoa edo irakatsiak argitzea; parenetikoa, edo bizitza berritzera eta ohiturak aldatzera eragitekoa.

Ik. Ebanjelizazioa; Hitza.

Jainkoaren ikustea

Ik. Ikuspen dokatsua.

Jainkoaren irudia

Sinboloarekin batera, *erlijio-zientziatiko eta bereziki kristau-teologiako kontzeptu behinenetakoa da.

*Numena edo misterioa agertzeko *izaditrik hartutako eruderen bat erabiltzen dute, gehienbat gurtza-asmotarako, baina baita *gogarterako eta helburu pedagogiko-didaktikoz ere, batez ere liburu santurik ez daukaten erlijio eta kulturetan. Fededunek Jainkoaz duten buruko irudia irudi materialaz eman nahi dute horrela, ahal denik egokien.

Irudi materialaren eta berorrek irudikatzen duen jainkozkoaren arteko lotura edota bereizkuntza puntu garrantzizkoa izan ohi da erlijio askotan, eta bakoitzak bere arau zehatzak eduki ohi ditu bi mailak ez nahasteko. Nahasketa horixe uxatzearen, hain zuzen, erlijio batzuk --hala nola, judaismoak, islamak eta neurri batez kristau Ortodoxoek ere bai-- debekatuta daukate Jainkoaren edonolako irudikapen materiala; era berean, protestanteek eta erreformatuek ukatu egiten dute giza-irudien gurtzarako bitartekotza, Eliza ekialdetarrak erlijiozko giza eskultura debekatzen duen bezala. Ik. Irudiak.

Kristau-teologiak gizakiari egozten dio "Jainkoaren irudia" kontzeptua, eta garrantzi handikoa, funtsezkoa, da beraren antropologian. Ik. Antropologia teologikoa.

Genesisia liburuan bertan (1, 26-27) has ten da lantzen "Jainkoaren irudiaren" teologia: bere antz eta irudira sortu omen du gizakia Jainkoak: gizakiaren lehen definizio teologikoa da Jainkoaren irudi izatea; Jainkoarekiko lotura berezko horrek beste *sorkariekiko harreman berezia dakarkio gizakia-ri, guztien nagusi eta jaun izatean gautzen dena bereziki. Sorkari guztiak dira Jainko sortzailearen aztarnak edo zantzuak; gizakia, berriz, Jainkoaren irudia da.